

IRAKASKUNTZA-GIDA

2017/18

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25945 - Soziologia eta Gizarte Langintza

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

DESKRIBAPEN LABURRA:

Irakasgai hau hurrengo modulo honetan sartzen da:

MODULO C: PROCESOS Y PROBLEMAS SOBRE LOS QUE ACTÚA EL TRABAJO SOCIAL

LABURPENA:

Soziologiara hurbiltzea, Soziologiak Gizarte Lanarekin duen harremana indartuz. Horretaz gain, honetan azaltzen da nola egiten den ikerketa soziologiko bat.

- Soziologiaren hasierak eta soziologiaren autore klasiko eta beraien ideiak eta hausnarketak ulertzea.
- Soziologiaren paradigma nagusiak eta kontzeptu elementalak Gizarte Lanaren egoera ezberdinetan aplikatuta.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

GAITASUNAK : Gaitasun espezifikoak/ Gaitasun orokorrak (CG) Moduloko gaitasunak (CM) eta bere Ikasteko emaitzak (RA)

1. Kontzeptu soziologikoak ulertzea eta ongi erabiltzea (egitura sozialari eta aldaketa sozialari dagozkienak ezberdinduz) arazo sozial ezberdinak errekonozitzeko eta ulertzeko. (M03CM01/CG001, CG.003, CG.010 transversal) (Moduloko Ikasteko emaitzak: M03RA 1)
2. Gizartearen funtzionamendua eta gaurko joera eta gizarte prozesu nagusiak ulertzea, arazo sozialen diagnostikoa egin ahal izateko. (M03CM04 /G001, CG.003) (Moduloko Ikasteko emaitzak: M03RA 4)
3. Análisi soziologiko bat planteatzea eta dokumentatzea arazo sozial ezberdinetan planteatu ahal izateko. (M03CM06 / CG.003, CG.005, C G. 007 transversal, G.009, G.010 transversal) (Moduloko Ikasteko emaitzak: M03RA 6)
4. Ikuspegi soziologiko batetik arazo sozialei teoria ematea arazo sozialen ezagutza zabaltzeko (M03CM05 /CG001, C G.004, CG. 007 transversal, C G.010 transversal) (Moduloko Ikasteko emaitzak: M03RA 5)

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

PROGRAMA TEORIKOA

Sarrera

1. gaia: Soziologia, zer da?
2. gaia: Soziologiaren sortzaileak
 - Gizartea, nola pentsatu?: soziologia tresnak
3. gaia: Kultura
4. gaia: Nortasuna eta gizarteratzea
5. gaia: Rola eta estatusa
6. gaia: Gizarte ordenua eta gizarte kontrola
7. gaia: Gizarte taldeak
8. gaia: Gizarte instituzioak
9. gaia: Gizarte estratifikazioa
10. gaia: Gizarte aldaketa

PROGRAMA PRAKTIKOA

1. Ikasleek Taldean lan praktikoa egin behar dute. Talde guztiek lan idatzia AZAROAREN AMAIERAN entregatu behar dute. Era berean, lan horren aurkezpena ABENDUAN azalduko dute klasekideen aurrean. Talde bakoitzak kolektibo bat aukeratu behar du eta kolektibo horren hurbiltzea soziologiko bat (deskriptiboa) egin behar dute Helburura da datu iturri ezberdinak erabiltzea eta Gizarte Lanaren gai bat azaltzea ikuspegi soziologiko batetik.
2. Ikasgelako praktikak egingo dira eta bere edukiak azterketa idatzian ebaluatu ahal dira eduki teorikoekin.

METODOLOGIA

Irakaskuntza modalitate bakoitza gara daiteke prestakuntza-jarduera desberdinen bidez. Irakasteko era bakoitzak ekintza ezberdinak suposatzen ditu. Koadroan agertzen direnez gainera beste batzuk gehi daitezke:

- klasean talde txikietan lan egitea

- lan idatzita egitea

Zehaztapen gehiagorako, ikus E-GELAN Ikaslerentzako Gida ren dokumentua.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda: M: Maistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO JARRAIA

- AZTERKETA NOTAK (APUNTEAK+ KLASEKO PRAKTIKAK) Azken notaren %60 BALIOKO DU
- LAN PRAKTIKOAK (TALDE LANA) Azken notaren %40 BALIOKO DU
- EZINBESTEKO DA ZATI TEORIKOA ETA PRAKTIKOA GAINDITUTA IZATEA IKASGAIA GAINDITZEKO

Azken ebaluazioaren sistema eskatzeko prozedura:

-Azken kasu honetan, ebaluazio prozedura ebaluaketa jarraia egiten dutenen berdina izango da, baina lana indibiduala da.

-AURREKO IKASTURTETAN ASIGNATURA HAU GAINDITUKO GABE DUTEN BESTE IKASLEENTZAKO OHARRA: baldin eta azterketa data aurretik entregatzen badute bere lan idatzia (aurreko urtetakoa onartua izanez) bakarrik azterketa idatzia egin beharko dute eta froga horren notak balioko du azken notaren %100.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioaren parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, horretarako, 9 asteko epea izango du lauhilabeteko irakasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita (BOPV, 2017ko martxoaren 13koa, 8.3. art)

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egiteko ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete bat lehenago egin beharko dute eskaria. Eskeri hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari (Idem: 12.2 art.)

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea (BOPV, 2017ko martxoaren 13koa, 12.3. art.)

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdirako arauak eta prozedurak mantenduko dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Eduki teoriko-praktikoak E-GELAn argitaratuak, eta beste batzuk ikasgelan bertan landutakoak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

ALBROW, M. Sociology: The basics, Routledge, London, 1999.

GIDDENS, A. Introduction to sociology, 2006.

LEE, D. & NEWBY, H. The problem of Sociology: An introduction to the discipline, Routledge, London, 1995.

MARCUS, M. & DUCKLIN, A. Success in Sociology, John Murray, London, 1998.

POPENOE, D. Sociology, Prentice-Hall, New Jersey, 1988.

SMELSER, N.J. (EDITOR) Handbook of Sociology, Sage Publication, California, 1988.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

- Revista Española de Sociología
- Revista Española de Investigaciones Sociológicas
- Revista Internacional de Sociología
- Revista INGURUAK

Interneteko helbide interesgarriak

www.eustat.es

www.ine.es

www.eurostat.eu.int

www.cis.es

OHARRAK

Akats ortografiko edo gramatikalaren bat baino gehiago edota erredakzio ez-egokia izateak suspentso kalifikazioa ekarriko du.